

## Azken hamar urteotan Euskadiko biztanleria gazteak % 30etik gorako beherakada jasan du

Gazte kopuruaren beherakada nabarmenagoa izan da 15 eta 24 urte bitartekoen artean. Araba da gazte indizerik altuena duen lurraldea, are Euskadi osoko gazte indizea baino handiagoa



2006ko Biztanleen Udal Erroldako datuek aditzera ematen dute EAEn 2.133.684 biztanle daudela orotara. Horietatik % 17,8 15 eta 29 urte bitarteko gazteak dira: 380.788 biztanle gazte daude, alegia.

Datu hauek duela hamar urte bildutakoekin konparatuz gero, biztanleria osoa handitu dela antzeman daiteke, baina baita 15 eta 29 urte bitarteko biztanleek % 32ko jaitsiera jasan dutela ere. 1996an Euskadin gazteak biztanleria osoaren % 23,9 ziren; 2006ko datuek, aldiz, % 17,8 baino ez direla erakusten dute.

Biztanleria gaztearen beherakada gazteenen artean nabari da neurri handiago batean (15 eta 24 urte bitartekoak).

EAEko biztanleria osoa eta biztanleria gaztea. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. EAE. 1996-2006				
	1996		2006	
<b>Guztira</b>	<b>2.098.055</b>	<b>100</b>	<b>2.133.684</b>	<b>100</b>
<b>15-29</b>	<b>501.506</b>	<b>23,9</b>	<b>380.788</b>	<b>17,8</b>
15-19	149.809	7,1	91.140	4,3
20-24	178.973	8,5	121.651	5,7
25-29	172.724	8,2	167.997	7,9

Iturria: Eustat, INE eta bertan egina. 1996ko datuak Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuari dagozkio, eta 2006koak Biztanleen Udal Erroldak urterilaren 1erako ematen dituenei.

Generoari dagokionez, maskulinitate-indizeak erakusten du 15 eta 29 urte bitarteko mutilen kopurua neskena baino altuagoa dela. Izan ere, 100 neskako 105 mutil daude.

Euskadin 65 urtetik gorako 111 pertsona daude 20 urtera arteko 100 pertsonako. Horrenbestez, biztanleria gazteak, kopuru aldetik, garrantzia galdu du biztanle nagusien aldean, azkeneko sei urteotan gertatu den bezala.

**EAEko hiru lurralde historikoetako** panoramak, 1996an erregistratu diren datuekin alderatuta, Araban eta Gipuzkoan biztanleria osoa handitu dela azalera du, eta Bizkaian murriztu egin dela. Araba da azken hamarkadan biztanle kopurua etengabe igotzen ikusi duen lurralde bakarra. Biztanle gazteei dagokienez, 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriak behera egin du hiru lurraldeetan.

<b>EAEko lurralde historikoetako biztanleria osoa eta biztanleria gaztea. Zenbaki absolutuak. 1996-2006</b>				
		<b>Araba</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>
<b>2006</b>	<b>Guztira</b>	<b>301.926</b>	<b>1.139.863</b>	<b>691.895</b>
	<b>15-29</b>	<b>56.977</b>	<b>203.408</b>	<b>120.403</b>
<b>1996</b>	<b>Guztira</b>	<b>281.821</b>	<b>1.140.026</b>	<b>676.208</b>
	<b>15-29</b>	<b>69.054</b>	<b>271.344</b>	<b>161.108</b>

Iturria: Eustat, INE eta bertan egina. 1996ko datuak Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuari dagozkio, eta 2006koak Biztanleen Udal Erroldak urterilaren 1erako ematen dituenek.

2006ko datuek adierazten duten bezala, 15 eta 29 urte bitarteko biztanleek Araban dute pisurik handiena, % 18,9ko gazte indizearekin. Ordezkapen-tasari dagokionez, Bizkaia beste bi lurraldeak baino gehiago ari da zahartzen; izan ere, 20 urtera arteko 100 gazteko 65 urtetik gorako 119 pertsona daude.

<b>EAEko lurralde historikoetako biztanleriari buruzko adierazleak. 2006</b>				
	<b>EAE</b>	<b>Araba</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>
<b>Gazte indizea</b>	<b>17,8</b>	<b>18,9</b>	<b>17,8</b>	<b>17,4</b>
<b>Ordezkapen-tasa</b>	<b>111</b>	<b>98</b>	<b>119</b>	<b>105</b>

Iturria: bertan egina.

**Erlazionatutako datu-etaurak:**

1. [taula](#) (pdf, 72 kb)
2. [taula](#) (pdf, 19 kb)
3. [taula](#) (pdf, 19 kb)

**Erlazionatutako estekak:**

[Gazteen Euskal Behatokiko estatistikak](#)